

balioetsi

balioztatu



balioetsi

Bi esanahi hauek adierazteko erabili ohi da:
baliozkotzat jo eta **balioa taxutu**, gaztelaniaz
valorar hitzarekin gertatzen den bezala.

Hona adibide batzuk:

- Merkatuak ez ditu **balioesten** geroko belaunaldien premiak.
- Hiritarrak zientzia eta zientzialariak errespetatu eta **balioetsi** egiten ditu, baina halako beldur bat sentitzen du, ezezagunaren aurrean sentitzen den beldur hori, hain zuzen.
- Emakumeak nahi du agerikotasuna, eta behar du agerikotasuna, ageri ez dena ez delako ezagutzen, eta ondorioz, ezin delako **balioetsi**.

Horietan guztietan **baliozkotzat jo** adierazi nahi du **balioetsik**.



Hona beste adibide batzuk:

- ❑ Oker **balioetsi** zituzten erabaki hark gerora ekarri zituen gizarte-ondorioak.
- ❑ Adituen esku utzi zituen txostenak, behar bezala **balioetsiko** baitzizkioten.
- ❑ Epaileak erabakiko du, aurkeztutako frogak **balioetsirik**, soldatek Estatuaren gain ala enpresaburuaren gain joan behar duten.

Horietan guztietan **balioa taxutu** adierazi nahi du **balioetsik**.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



balioztatu

Balioa eman edo **balioz hornitu** esanahia dagokio. *Orotariko Euskal Hiztegiak* **validar** gaztelaniazkoaren ordain gisa ematen du.



Hona adibide batzuk:

- Denbora asko egin dut itzulerako txartela **balioztatzen**, mapa bat erosten, dirua aldatzen.
- Harryren testamentua **balioztatzeko** izapide zaila hastekotan zen, eta hilabeteak igaroko ziren etxearen eskritura onuradunei eman aurretik.
- Nire arrebak mendietan irakasle gisa egin zuen denbora **balioztatu** egin zuen Estatuak, eta urruneko herrixka batean postu bat aurkitu zuen.

baloratu

Hiztegi Batuak sarrera ematen dio; baina **balioetsi** eta **balioztatu** hobesten ditu:

baloratu, balora, baloratzen. *du* ad. h. **balioetsi**, **balioztatu**.



Halaber, **balorapen** gaitzetsi egiten du; eta **balorazio**, berriz, hegoaldeko laburduraz markatzen:

balorapen* e. balorazio
balorazio iz. *Heg.*



baliozkotu



Tradizio urrikoa da: ez da ageri ez *Orotariko Euskal Hiztegia*, ez *Hiztegi Batuan*, ezta *Euskal Hiztegia* ere.



Bai Zehazkin, **convalidar** sarreraren ordain gisa. Baita *Elhuyar hiztegia* ere (<http://www.elhuyar.org/hizkuntza-zerbitzuak/EU/Hiztegi-kontsulta>):

validar v.tr. baliozkotu; baliozkotzat jo; balioetsi; balioztatu
Es necesario validar los datos del estudio: ikerketaren datuak baliozkotu egin behar dira.



Hauxe da, horrenbestez, Euskara Zerbitzuaren aholkua:

Erabil bedi **balioetsi** bi adiera hauetan:

1. **Baliozkotzat jo**: *Merkatuak ez ditu balioesten geroko belaunaldien premiak.*
2. **Balioa taxutu**: *Adituen esku utzi zituen txostenak, behar bezala balioetsiko baitzizkioten.*

Erabil bedi **balioztatu** adiera honetan:

1. **Balioa eman** edo **balioz hornitu**: *Tranbiara igo aurretik balioztatu behar da txartela.*

Erabil bitez **balioetsi** edo **balioztatu**, idazkera zainduan, **baloratu** erabili ordez.

Saihets bitez, bestalde, honelako klixeak: '**positiboki/negatiboki baloratu**'.

Hauek hobeto: *Egokitzat/Txartzat jo zuten agintarien kudeaketa-lana.*

Beste hauek baino: *Positiboki/Negatiboki baloratu zuten kudeaketa-lana.*



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea